


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Biluztasunaren zikinkeria aldarri



Amaia Alvarez Uria



X hil da

ALAINE AGIRRE

Elkar, 2015

Bizitza, heriotza, maitasuna eta literatura dira liburu honen ardatz nagusiak. Jainko paganoa dago orrion atzean bere maiteari, X-i, bizitza kentzen eta ematen. Mendebaldeko kulturaren hamaika aldiz agertu zaigun Eros eta Thanatosen arteko tira-bira agertzen zaigu hemen berrituta.

Azalean eskaintzen digu protagonistak bere bihotza, edo X-en bihotza, nondik begiratzen den. Alde batetik narrazio autobiografikoaren bidez bere burua biluzten du, barruko desira eta munstroak erakusten dizkigu. Beste alde batetik bere maitatuari buruz hitz egiten digu, bera galtzea zer izango litzatekeen adieraziz, min gorritz.

Lan honetan hausnarketarako aukera ematen zaigu, heriotzari nola egiten diogu aurre, maite dugunaren galerak zer dakarren, doluaren prozesua nolako den, abandonua edota bakardadearen kudeaketa zelan egin daitekeen. Eta horrekin batera egungo harreman motak auzitan jartzen ditu muturreraino eramanez fantasia katastrofikoaren bidez. Pentsatuz, imajinatuz, zoratu gaitezke, obsesionatu, jelsiak jota amaitu. Zer da maitasuna? Nola bizi dugu? Zer ematen di(o)gu? Nekea, errua, nazka, beldurra, iluntasuna, menpekotasuna, sumisioa, autoanulazioa, sufrimendua... Hori guztia ere bai, ezta?

Maitasuna pasio eta obsesio gisa bizi dituen protagonistak bi idazle aipatzen ditu: Marguerite Durás eta Annie Ernaux, eta, bereziki, inplizituki, haien *Maitalea* eta *Pasio hutsa* liburuak aitortzen ditu iturri eta inspirazio, lan hauetan oinarriturik "sutsuki maitatzea" berarentzat zer den kontatzen digulako liburu honetan. Gainera, maitearen

heriotzarekin, "maitasunaren hilezkortasuna" ere ezbaian jartzeko aukera ematen du, "maitasun erromantikoaren mitoa" agerian utziz nahi duenarentzat.

Liburuak 70 orri behar ditu, ez 700, modu trinko eta mamitsuan aipatutakoak mahai gainean paratzeko. Baina ez da hori bakarrik bertan topatuko duguna, egileak idazteari buruz uste duena ere agertuko zaigu. Berarentzat barrukoa askatzea da, bizitza fikzionalatzea, literatura bihurtutako auto-analisisa egitea. Modu horretan, besteen beldur eta mamuekin bat egin nahi du, bizitzak eragindako zauriei buruz idazteko beharra sentitzean horri bide eman eta paperean ipintzen du irakurlearengana hurbilduz, plazaratu berri den idazle baten hasierako "asmoen adierazpena" eginez.

Bere opera prima izan zen *Odol maituak* (2014) eta jarraian etorri da *X hil da* (2015) "manifestua". Larru-azala gorritz jantziz euskal letretan. Biluzik eta zikin agertzeko aldarri egiten. Ea zer datorren jarraian. Gu zain izango gaitu. ■

